



Oinarriak

#LomZeBroma Twitter lehiaketa

- 1) HELBURUA. Twitterren LOMCE Hezkuntza Lege berriari **gazteok ikusten dizkiogun desabantailak** tonu umoretsuan gizarteratzea da lehiaketa honen helburua.
- 2) BALDINTZAK. Zozketan parte-hartzeko, honako ezaugarriak beteko dituen tuit bat idatzi behar da:
 - a. **#LomZeBroma etiketa** izan beharko du tuitak.
 - b. Tuitak @GazteKontseilua-ri aipu egin behar dio.
 - c. Tuita jartzen duen pertsonak, LOMCEaz gustatzen ez zaiona adierazi beharko du, **tonu umerotsuan** (txantxa, ironia, txistea, adarra jotzea, ziria sartzea, broma...).
 - d. Euskaraz zein gaztelera (ala bietan) izan daiteke tuita.
- 3) SARIAK:
 1. saria: **e-book** bat ala **Elkarren 100€** gastatzeko opari-txartela (aukeran).
 2. saria: **Elkarren 25€** gastatzeko opari-txartela.
- 4) EPEA: **abenduaren 10era** arte (barne) argitaratutako tuiten artean egingo da zozketa.
- 5) ERABAKIA: Saria emateko, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak **zozketa** egingo du lehiaketan parte hartu duten parte-hartzaile guztien artean. Tuit bakarra ala tuit bat baino gehiago jarri, pertsona bakoitzak zenbaki bakarra izango du zozketan. Hau da, saria irabazteko aukera bera dago tuit bat ala tuit bat baino gehiago bidalita.



- 6) ZOZKETA: abenduaren 11n (asteazkena) eguerdiko 13.00etan egingo du zozketa Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, EGK-ko Bilboko egoitzan. Zozketa publikoa izango da (edonor etorri daiteke). Bi saridun egongo dira, eta bi ordezko.

- 7) JAKINARAZPENAK: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak abenduaren 11n bertan jakinaraziko die sarituei mezu pribatu eta mezu publiko bitartez zozketan sarituak izan direla. Abenduaren 14a baino lehen erantzuten ez badute, saria zozketan ordezko gisa geratu diren pertsoneri egokituko zaie. Ordezkoek ez badute abenduaren 16a bukatu baino lehen erantzuten, saria eman gabe geratuko da.

- 8) SARIA EMATEA: saria jasotzeko, gertuen dagoen Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko egoitzara joan beharko dira sarituak, bertako langileekin adostutako ordu batean. NANA eskuan eraman beharko dute eta, Twitterreko izena izengoiti bat bada, kontua haiena dela erakutsi beharko dute ere. Bestalde, Gazteriaren Kontseiluak argazkia egingo die, sare sozialetan sariaren berri emateko.

- 9) ONESPENA: Zozketa honetan parte hartzeak zozketaren oinarriekin bat egitea suposatzen du.

- 10) ARDURA: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak jasotako tuiten edukiaren gaineko edozein ardura ukatzen du, bai eta parte-hartzaileen jokabidearen gaineko ardura oro ere.

<https://twitter.com/GazteKontseilua>
